

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak Industria Ministerioari ETBren emisio digitalak bertan behera uzteko agindua baliogabetzeko eskatu dio

Aurreko Gobernuak emisio horiengatik 2015eko martxoan jarritako salaketa kentzea erabaki du gaurko bileran

Asteazkena, 2016.eko apirilak 20

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran Industria Ministerioari kautelazko neurriak kentzeko eskaera egitea erabaki du; haien bidez, ETBko kanalen emisio digitala berehala bertan behera uzteko agintzen da. Eskaera hori herritarrei informazioa emateko oinarritzko eskubideari eragingo zitzaien kalteagatik egingo da; horrekin batera, aurreko Gobernuak emisio horiengatik 2015eko martxoan jarritako salaketa kentzea erabaki du.

Aipatu behar da Foru Gobernuak astelehen honetan izan duela Industria Ministerioaren Telekomunikazioen Zuzendariordeak EITBri eta Itelazperi irekitako zehapen-espedienteen berri; bertan, kautelazko neurri horiek ematen ziren aipatutako salaketari erantzunez (halakorik zegoenik ez zekien).

Halaber, espediente horietan interesdun gisa aurkeztea erabaki du, kautelazko neurriak kentzearen eta EITBren emisioen (aldi baterako) jarraipenaren defentsan, 2013an Nafarroako Parlamentuak onartutako mozio baten arabera; azken horren bidez, Gobernuari ETB TDT bidez ikusteko aukera berriak eskaintzeko eskatzen zitzaion.